BC 2024

# Bizkaia Sortzailea

**Xedea** (1. oin.)

Lehendik dauden edo sortu berri diren Bizkaiko enpresa sortzaileek dituzten proiektu sortzaile berrien garapena bultzatzea, era horretara Bizkaian enpresa sortzaileen sektore indartsua finka dadin.

**Entitate onuradunak** (3. oin.)

- Jarduera nagusia ikus-entzunezkoen, bideojokoen, modaren eta produktuen eta zerbitzuen diseinu industrialaren sektorearen esparruetan garatzen duten enpresa sortzaileak.
- BiDCen identifikatutako sektoreren bateko enpresa edota profesionalak biltzen dituzten irabazteko asmorik gabeko elkarteak, honako hauei lotutakoak: arkitektura, artea, artisautza, barne-diseinua, bideo-jokoak diseinua, eduki digitalak, ikus-entzunezkoak, komunikazioa eta moda.

Eskabidea aurkezteko egunean honako **betekizunak** bete beharko dituzte, besteak beste:

- Sozietatearen helbidea, zerga-helbidea eta ekoizpen-zentro bat Bizkaian izatea.
- Legez eratuta egotea merkataritzako sozietate, kooperatiba edo irabazteko asmorik gabeko elkarte moduan.
- EJZn alta emanda egotea.
- Enpresen kasuan, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, gutxienez lanaldi lansaio osoko lanpostu bat edukitzea.
- Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak egunean edukitzea.

**Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea** (4. oin.)

- Enpresa sortzaile bat sortzea.
- Existitzen den enpresa batean lehiakortasuna hobetzeko proiektuak garatzea, negozio-ildo sortzaile berri bat dutenak eta enpresaren jarduera modu argian dibertsifikatzen dutenak, edo, bestela, proiektu bat egitea, zeinak aurretik dagoen negozioaren eskalabilitatea edo produktuaren/zerbitzuaren estandarizazioa egiteko aukera ematen duen.
- Jada garatutako produktu sortzaileak nazioarteko merkatuetan sartzea, lehendik zeuden enpresa sortzaileen kasuan.
- Irabazteko asmorik gabeko erakundeen kasuan, Enpresa sortzaileen fakturazioa edota enplegua eta gaitasun profesionalak hazteko proiektuak garatzea.

**Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak eta dirulaguntzaren zenbatekoa** (5 eta 6 oin.)

Dirulaguntzaren gehieneko portzentajea eta zenbatekoa lortutako puntuazioaren arabera izango da:

| Diruz lagungarriak diren gastuak | Puntuak | % max. | Zenbateko max. |
|---|---|---|---|
| Bideragarritasun, merkatu-azterlanak, marketin-azterlanak eta txosten teknikoak.<br>Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua, ezaugarriak eta oinarrizko funtzionalitateak garatzea.<br>Proiektua garatzeko kanpoko aholkularitza.<br>Jabetza intelektuala edo industriala babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak.<br>Bidaiak egitea eta azoketan parte hartzea.<br>Abian jartzeko gastuak.<br>Proiekturako jarritako langileen barne-gastuak | 50 - 59 | 80 % | 15.000 € |
| | 60 - 69 | 80 % | 25.000 € |
| | 70 - 79 | 100 % | 35.000 € |
| | ≥80 | 100 % | 40.000 € |

- Gehieneko gastu-muga bat dago honako kontzeptu hauetarako, aurreko taulako gehieneko mugen barruan:
  - Abian jartzeko gastuak.: 8.000 €
  - Azoketara eta lotutako bidaietara joatea: 8.000 €
  - Jabetza intelektualaren edo industrialaren babesa, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak: 8.000 €
  - Proiektura bideratutako langileen barne-gastua: gehienez ere % 40 eta 10.000 €-koa izango da, 50-59 puntu lortzen badira gehienekoa 7.500 €-koa izango a. Langileek kontratatuta egon beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Gainera, **enpresa berrientzat**, altaren lehenengo data EJZn 2021eko urtarrilaren 1a edo ondorengoa dutenentzat:

| Diruz lagungarriak diren gastuak | Puntuak | % max. | Zenbatekoa max. |
|---|---|---|---|
| Enpresa berria sortzeagatiko prima. | ≥50 | 30 % | 15.000 € |
| Bizkaian negozio-lokala errentan hartzea. | 50- 69<br>≥ 70 | 60 %<br>80 % | 10.000 € |
| Negozioa garatzeko pertsona bat kontratatzea. | ≥50 | 50 % | 20.000 € |

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, errendamendu-kontratua formalizatuta eta negozioaren garatzailea kontratatuta egon beharko dira.

**Egiteko epea** (25. eta 26. oin.)

Gastuak **2023ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean** egin beharko dira, eta 2026ko urtarrilaren 31n benetan ordainduta egon beharko dute.

**Araudia eta emateko prozedura** (16. oin.)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 26/2024 Foru Dekretua, martxoaren 7koa (54. zk.ko BAO, 2024ko martxoaren 15ekoa).
Emateko prozedura norgehiagoka izango da.

**Eskabideak aurkezteko epea** (13.6. oin.)

**2024ko apirilaren 29ko 8:30etik 2024ko maiatzaren 31ko 13:30era.**
Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez aurkez daiteke www.bizkaia.eus/Sustapena-OficinaVirtual Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko da (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA…), B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6an eska daiteke.

EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA
ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUA
Orueta Apezpikua 6, 48009 Bilbo

Informazioa:
tel.: 944 068 008
enpresasustapena@bizkaia.eus
www.bizkaia.eus

Entitate laguntzailea: Beaz SAU. Sabino Arana, 8 - 48013 Bilbao – Tel. 944 395 622